



Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA		

Bilerari buruzko datuak:

Eguna: 2014-10-16 Tokia: Santa Klara jauregia Ordua: 17.00-19.00.

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo

Eskuz-Esku: Isabel Perez

Gizatiar: Marisa Pedrero

Mujeres con Voz: Luciana Gomez Davies

ELA: Elvira Lemona

Getxo Enpresa: Julia Dulce

Udaleko Alderdi Sozialista: Teresa Garcia Oviedo

Bildu: Arantza Gutierrez

EAJ-PNV: Elena Coria

Lehendakaria: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

Bertaratu gabeak:

Enclave de ciudadanas por Getxo

Alderdi popularra

Roda

Gai-zerrenda

- Aurreko akta onartzea.
- Azaroaren 25erako, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunerako, proposamenak.
- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea.

Aurreko bilerako akta onartu egin dute.

Azaroaren 25erako, emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunerako, proposamenak

Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du proposamenak aurkezteko epea jarri zela eta ez dutela proposamenik jaso. Berdintasuneko teknikariak esan du Mujeres con Voz elkartearen proposamen bat jaso zutela, zinemaren bitartez indarkeria patriarkala nola transmititzen den azaltzeko hitzaldi bat emateko proposamena alegia, eta eguna eta guzti zehaztu zutela. Berdintasuneko zinegotziak adierazi du gai hori aurreko bileran aipatu zutela eta horregatik ez duela kontuan hartu.

Berdintasuneko teknikariak azaldu du Rodak epe barruan bidali dituela elkarte gisa egin behar zituzten jardueren proposamenak, eta uste duela ez dutela ulertu proposamenak Batzordearen ekintza komun en gainekoak izan behar zutela.

Bilgune Feministak jakinarazi du ez dutela proposamenik egin ulertu zutelako aurrena enpresari azaroaren 25erako eskatutako proposamenak landuko zirela Batzordean.

Berdintasuneko zinegotziak enpresak aurkeztutako proposamena zertan den azaldu du; argitu du proposamena ez dela behin betikoa eta bilera bat dutela hitzartua gai batzuk zehazteko (bilera ezin izan dute Batzordea bildu baino lehen egin).

Enpresak hainbat ekintza proposatu ditu, baita bideo bat egitea ere ekintza horiek biltzeko eta kanpaina amaieran jaialdi batean emateko. Zinegotziaren iritziz, ordea, bideoak egiten diren ekintzen arabera izango du zentzua.

1) Jendartea asaldatzea, irudizko produktu bat saltzen duen kanpaina biral baten bitartez; produktu hori emakumeak erasoez babesteko armadura bat izango da. Kanpainak hiru egun iraungo du, eta laugarrenean beste biral bat aurkeztuko da, bideo osoarekin; bideo horretan azalduko da indarkeria sexista deuseztatzeko erantzukizuna ez dutela emakumeek bakarrik hartu behar eta emakumeek beren burua babestearekin ez dela indarkeria hori deuseztatzen.

2) Kontzientziaztea eta parte hartzea:

- Puntu liladun txapak banatzea. Dinamizazio-lana egingo litzateke, ikustarazte-ekintza horretan ahalik eta eragile gehienek parte har dezaten, borondatez.
- Udalerriko leku estrategikoetan gune lilak jartzea, udal-eraikinetan daudenen modukoak. Atal honetan, Berdintasuneko zinegotziak jakinarazi du Bizkaiko Zubia kudeatzen duen enpresarekin harremanetan jarri direla, aurreko bileran esan bezala, eta enpresa ados dagoela han gune lila erraldoi bat jartzearekin.

Asmoa da gazteak eta herritar guztiak gune lila horietan argazkia (selfie) ateratzera eta ekimenaren sareetan jartzera animatzea, indarkeria sexistaren kontrako borrokaren alde egin dezaten.

- Gazteentzako "Lilaratu" kanpaina. Zehaztu behar da sakelako telefonorako aplikazio baten bitartez edo web-formatuan egingo den. Kanpaina horren asmoa da eduki teorikoak zabaltzea, besteak beste indarkeria sexistari, indarkeriazkotzat hartutako jarrerari eta indarkeria-motei buruzko auto-ikaskuntza modulu bat. Moduluak test bat dauka, eta test hori gainditzen dutenek saria jasoko dute: eskumuturreko lila bat, indarkeria sexistaren kontra daudela adierazten duena. Berdintasuneko zinegotziaren iritziz, arazo bat dago: zinegotziak espero zuen moduluko testua eta testa enpresak egitea; ordea, enpresak proposatu duena da udalerriko emakumeen elkarteekin eta berdintasunaren aldeko elkarteekin hiru bilera egitea, edukiak elkarrekin sortzeko. Berdintasuneko teknikariak argitu du enpresa ez dagoela berdintasunean espezializatua, prozesu eta metodologia partizipatiboen dinamizazioan baizik. Zinegotziak esan du metodologia horrekin kontuz ibili beharra dagoela, gerta daitekeelako materiala egoki eta garaiz ez amaitzea. Elkarteen gaitasunean uste osoa dauka, baina berandu dela iruditzen zaio.
- Beste proposamenetako bat "Jauzi egin baino lehen" da. Helburua da erasoak jasan dituzten pertsonekin enpatiko izatea, indarkeria jasaten dutenak ez epaitzea. Horretarako dekalogo bat egingo litzateke, eta Berdintasuneko zinegotziak esan du asmoa dela dekalogo hori emakumeen elkarteekin batera lantzea, aipatu hiru bilera horietan. Zinegotziaren iritziz, elkarteak gai horretan sentibilizatuta daude dagoeneko. Horregatik, planteatu du bilera horiek egin beharrean herritar guztientzako hitzaldi bat antolatzea; dena den, aitortu du gaia iaz azaroaren 25erako landutakoaren oso antzekoa dela, beharbada.

3) Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako jaialdia. Azaroaren 25ean jaialdi bat egitea proposatu dute, lokal itxi batean (ikastetxeren bateko jolastokian, adibidez). Asmoa da, hain zuzen ere, minutu bateko isilunea egitea, adierazpen bat irakurtzea eta zenbait jarduera egitea. Jaialdiarekin batera erakusketa-eremu bat egongo da, elkarteek haien materiala jar dezaten.

Berdintasuneko zinegotziaren iritziz hori da gairik konplikatuena, ez dakielako Gizatiarren elkarretaratzearekin batera nola antolatu daitekeen.

Gizatiarreko ordezkariak esan du elkarteari proposatu diotela Batzordearekin batera zerbait antolatzea, eta bazkideak ez daudela ados: urteroko elkarretaratzeari eta

ostegunetako hitzaldi eta jardueri eutsi nahi diete. Alde horretatik, azaroaren 6an world kafe bat egingo dute, krisiak emakumeen osasunean dauzkan eraginen ingurukoa; eta azaroaren 20an elikadura-nahasteei eta genero-indarkeriari buruzko hitzaldi bat, nutrizioko diploma duen psikologo kliniko batekin. Jarduera bateratuak egiten badira eta denbora aldetik bateragarriak badira, parte hartuko dute.

Eskuz eskuk jakin nahi du kanpainaren berri nola emango den, eta Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio gizarte-sareen eta udal-hedabideen bitartez egingo dela hori (web-gunea, Getxoberri...).

Bilduk galdetu du gazteentzako jarduerak Beldur Barik programaren barruan sartzea pentsatu al duten. Berdintasuneko teknikariak adierazi du Berdintasun Zerbitzuaren kezka izan dela hori. Teknikariari ez zaio gustatzen kanpaina eta mezu desberdinak jende berari helaraztea; dena den, aitortu du Getxoko gazteek ez diotela harrera oso ona egin Beldur Barik programari. Ez daki hori edukiagatik edo udalerrian egiten den hedapenagatik gertatzen den. Edonola ere, azken urtean tailerrean kolektiboki egindako bideoa bakarrik aurkeztu zuten lehiaketara, eta aurreko urtean beste lanen bat; aldiz, beste udalerrri batzuetan lan gehiago aurkezten dituzte lehiaketara. Horrez gain esan du bi kanpainak nola bateratu aztertzen ari direla eta, eskumuturrekoaren kasuan, ez dakiela Eudeli baimena eskatu behar zaion BB marka aurrez zehaztu gabeko produktueterako erabiltzeko. Edozein modutan, kontuan hartuko da.

PSEk galdetu du ikastetxeekin elkarlanean aritzea pentsatu al duten, eta Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio ikastetxeen arazoa dela ekimen asko dauzkatela eta ez zaiola zentzuzkoa iruditzen gero beharbada baliatuko ez duten materiala sortzea. Berdintasuneko zinegotziak esan du egia dela ikastetxeek gai asko lantzen dituztela, baina batzuk egun horietarako jarduerak antolatzen dituztela eta, zenbaitetan, materiala edo laguntza eskatzen dutela.

Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du enpresak planteatu duela testeko eta moduluko edukiak emakumeen elkarrekin lantzea, hiru saiotan; alde horretatik, zinegotziak uste du ez dutela denborarik izango eta, beharbada, egokiena izango dela gai hori hurrengo urterako uztea.

Bilduk proposatu du eskumuturrekoari eustea, denbora-faltagatik edukia elkarrekin landu ezin badute ere.

Berdintasuneko teknikariaren iritziz, dagoeneko sortutako materiala erabil daiteke modulua eta testa egiteko, eta denbora nahikoa edukiko lukete.

PSEk uste du garrantzitsuena dela eztabaida eta inpaktua sor dezaketen mezu motzak botatzea. Esaldi motzek eta irudiek dute eragin gehien gazteengan, eta testa mezu horiek interpretatzeko modua izango litzateke, gero emaitza, eskumuturrekoa, lortzeko.

Bilduk planteatu du material berria egiteko denbora ez badago, Beldur Barik baliatu daitekeela, eta testa aurreko urteetako bideoetakoren batean oinarritzeko aukera aztertu daitekeela. Eskuz esku proposamen horren alde dago, eta Berdintasuneko teknikariak esan du aurreko urteetan irabazi duten bideoak berrikusiko dituela, zer material erabil daitekeen ikusteko.

Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du enpresak egindako proposamenetik zer produktu aukeratuko diren erabaki beharra dagoela.

ELAren ustetan ideiak onak dira eta ondo aurkeztuta daude; arazoa edukiak sortu beharra da, denbora gutxi dagoelako.

Bilgune Feministak galdetu du Getxo gertu (informazio-pantaila elektronikoak) erabil al daitekeen kanpainaren berri emateko. Berdintasuneko teknikariak erantzun dio eskuarki erabiltzen dela; egiaz, oraintxe Beldur Bariken deialdia dago martxan. Kide batzuk esan dute maiz mezuak garaiz kanpokoak direla; orain, adibidez, uztaileko jazz azaltzen da.

Kideak oro har ados daudenez, Berdintasuneko zinegotziak testa dauden materialekin egiteko eta eskumuturrekoari eusteko proposamena jaso du. Bilgune Feministak adierazi du indarkeria urte osoan ikustarazi behar dela, materiala erabiltzen jarrai daitekeela, eta uste duela ez direla gazteak bakarrik sentsibilizatu behar.

Getxo Enpresak proposatu du dendariak inplikatzeko obrak eta abar erakusgai jartzeko.

Mujeres con voz elkarteko kidea ados dago, baina azaldu du dagoeneko proposatu dutela Getxoko artisten obrak erakusgai jartzea, esan zieten helbide elektroniko batera mezua bidalita, baina ez dietela erantzun ere egin.

EAJko ordezkariaren iritziz garrantzitsua da dendetan erakusketak egitea; izan ere, ikastetxeetan gauzatzen diren ekintzak pertsona jakin batzuentzat dira, baina dendetakoak herritar guztientzat izan daitezke.

Berdintasuneko zinegotziak jaialdiaren gaia jarri du mahai gainean; interesgarria iruditzen zaio baina bi arazo ikusten ditu: batetik, leku itxi batean antolatzea; eta bestetik, Gizatiarren elkarretaratzearekin batera egitea. Haren aburuz, ez dauka zentzurik egun berean bi isilune egitea, bi adierazpen irakurtzea...

Berdintasuneko teknikariak uste du Gizatiarren elkarretaratzeak ez dituela gainerakoen proposamenak mugatu behar, hori beti gertatuko delako. Gainera, gogoratu du Gizatiarreko ordezkariak, iazko azaroaren 25eko jardueren ondoren, elkarretaratzea triste eta mugatua iruditzen zitzaizela eta buelta emateko zer edo zer egin beharra zegoela esan zutela.

Eskuz eskuk proposatu du jaialdia Gizatiarren elkarretaratzea egiten den lekuan egitea.

Mujeres con voz elkarteko ordezkariak proposatu du rapera feminista bat eramatea, eta Gizatiarreko kidea ados dago.

Berdintasuneko zinegotziak esan du eguraldia arazo izan daitekeela, eguraldi txarra egiten badu ekintza guztiak arkupeetan egin beharko direlako.

Berdintasuneko teknikariak adierazi du leku horrek aukera gutxi eskaintzen dituela, besteak beste jende gutxi ibiltzen eta biltzen delako. Horrez gain, gogoratu du erakundeek elkarretaratze hori babestuko dutela segurutzat jotzen dela, nahiz eta ez den emakumeek udalerrian antolatzen duten bakarra, Bilgune Feministak, adibidez, Telletxen beste bat antolatzen baitu.

Bilgune Feministak esan du Areetan antzezpena egingo dela, eta jaialdia eta elkarretaratzea ere han egitea planteatu dela; ondorioz, galdetu du gainerako auzoetan zer egingo den. Bilgune Feminista Algortako elkarte da, eta ordezkariak argitu nahi du Batzordean dauden arren ekintzaren bat edo beste antolatzeko libre sentitzen direla. Zehazki, Uribe Kostako Koordinakunde Feministan parte hartzen dutela, adibidez, abortatzeko eskubidearen gaian. Horregatik, espero du beren kasa ekintzak antolatzen badituzte, gainerakoek gaizki ez hartzea.

Berdintasuneko zinegotziak planteatu du, Gizatiarrek eta Bilgune Feministak azaroaren 25erako deialdiak egin behar badituzte, Udalak ez duela ezer gehiago antolatu beharrik, jendea sakabanatu egingo litzatekeelako.

Bilgune Feministak proposatu du asteburuan egitea, eta zinegotziak erantzun dio proposamena dela asteartean eta lokal itxi batean egitea. Alde horretatik, zinegotziak gogoratu du 25ean osoko bilera dagoela eta eguna aldatzea zaila dela.

Halaber, Berdintasuneko zinegotziak proposatu du, baldin eta erasotako pertsonekin bat egiteko eta iritzirik ez emateko premien gaineko dekalogoia egiteko partaidetza-prozesurik ez badago, lehen planteatu bezala, hitzaldi arrunt bat antolatzea, nahiz eta gaia iaz zeharka landu zen. Denek uste dute gaia iazkoaren oso antzekoa dela, eta proposatu dute beste bat lantzea.

Berdintasuneko zinegotziaren iritziz, gazteen indarkeria presaz landu beharreko gaia da; dena den, aitortu du gazteek ez dutela parte hartuko. PSEko ordezkaria gazteak engaiatzeko moduarekin kezkatuta dago.

Eskuz eskuk tratu txar psikologikoen inguruko hitzaldi bat antolatzea proposatu du. Eta Bilgune Feministako ordezkariak esan dio *Hitzak* antzezlanari gai horri buruzkoa dela, hain zuzen ere; alde horretatik, proposatu du gezurrezko salaketen mitoa eraistea.

Gai hori lantzearekin ados daude denak.

Berdintasuneko zinegotziak proposameneko zer ekintzei eutsiko zaien laburtu du: armaduraren bideo birala, puntu liladun txapak, puntu liladun biniloak,

autorretratuak, dauden materialekin egiteko testa, "Lilaratu" eskumuturrekoa eta hitzaldia. Talde guztiak ados daude.

Ondoren, proposatu du testa egiteaz gain gazteak puntu lila bat aurkitu eta eskumuturrekoa lortzeko argazkia egitera animatzea. Proposamena ondo hartu dute.

ELAk proposatu du armadurari buruzko bideo osoa (kanpaina osoa biltzen duena) egin ondoren Udaleko langileei posta elektronikoz bidaltzea.

Galde-eskeak

- Jaiak.

Bilduk galdetu du Hezetasunaren jaietan esku-hartzerik egin al daitekeen, ikastolari oso lotuta dauden jaiak direlako eta, beraz, gazte askok parte hartzen dutelako. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio horixe proposatzea pentsatua zuela, material asko dagoelako soberan. Berdintasuneko zinegotzia proposamenaren alde dago, kanpaina udalerriko jai handienetan egiten den arren, material nahikoa dagoelako.

- Jabekuntza Eskola.

PSEk Jabekuntza Eskolak ikasturte honetarako antolatutako matrikulazio-sistemaren balorazio oso ona egin du; ikastaroa egiten ari diren ikasle batzuk harekin ados daude.

Bilgune Feministak galdetu du kanpoan geratzen den jendearen inguruko balorazioa egingo al duten, konponbideren bat bilatzeko. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio balorazioa egiten dela.

- Hirigintza eta generoa.

PSEko ordezkariak esan du hirigintzari, generoari eta partaidetzari buruzko tailerra oso egokia dela, HAPO berrikusten ari direlako. Gai hori lantaldeen prestakuntzan jorratu zen, ordu erdiko hitzaldi batean, eta azaldu du gai horrekin zerikusia duen xehetasunen bat ematen duenean "poker aurpegiarekin" begiratzen diotela. Haren iritziz, jendea ez da jabetzen genero-ikuspegiaren garrantziaz, eta sentsibilizatu beharra dago. Horregatik, galdetu du gaia kudeatzen ari den enpresa katalanak lanean ikuspegi hori aplikatzeko dinamikaren bat bideratu al daitekeen. Tailerrean hirigilearekin landu duten adibide bat azaldu du, emakumeak eta gizonak lantaldeetan bereiz jartzea, alegia, hiriaren gainean duten ikuspegia eman dezaten. Izan ere, beste leku batzuetan bi taldeek hiri desberdinak sortu dituzte.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio emakume edo gizon izateak ez dituela nahitaez emaitzak baldintzatzen, emakume batzuk, sozializazioagatik, ideia

patriarkalak izan ditzaketelako, haren iritziz. HAPOri dagokionez, aipatu prestakuntza egin dela gogoratu du, eta esan du orain, planaren berrikuspen-fasean (biztanleria-azterlanak egiten ari direnean), genero-ikuspegia sartzek ez duela zentzurik; dena den, egoki iritzitako uneetan sartzek eska daiteke. Alde horretatik esan du taldean parte hartzen ari den emakumeen elkarteari ere ez zitzaiola egoki iruditzen fase horretan genero-ikuspegia sartzek.

Berdintasuneko teknikariaren iritziz, biztanleria-azterlanetan egokia eta beharrezkoa da genero-ikuspegia kontuan hartzek. Arazoa da ikuspegi hori sartzeko ezaupide espezifikoak eduki behar direla eta, baldin eta gero ez badute nor edo nor kontratatu, plana egiten ari den enpresak ez dauzkala ezaupide horiek. Izan ere, HAPO egingo zuen enpresa kontratatzeko agirietan ez zitzaien eskaintzaileei horrelako baldintzarik betetzeko eskatzen.

Berdintasuneko zinegotziak hitz eman du zinegotziak berak eta gobernu-taldeak ere planaren hurrengo faseetan genero-ikuspegia aintzat hartuko dutela.

- Klausula sozialak.

Bilgune Feministak jakinarazi du Emakundek enpresetan klausula-sozialak sartzeari buruzko jardunaldia antolatu duela hilaren 14rako; gai horrek eztabaida sortu ohi du eta, haren iritziz, garrantzi handia dauka.

Horren harian, Berdintasuneko teknikariak esan du Emakundek herri-administrazioak kontratazioan gizarte-klausulak sartzeko gida bat egin duela, baita enpresei klausula horiek betetzen laguntzeko eta, era horretan, administrazioarekin kontratuak egin ahal izateko gida bat ere.¹

Hurrengo bilera: ABENDUAK 11, osteguna, 17.00etan SANTA KLARAN.

¹ Gidak: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-2020/eu/contenidos/informacion/ipp_clausulas/es_emakunde/index.html